

**AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ HASIERA EMATEN BAITZAI O EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.**

Justizia errestauratiboa zigor-sistema tradizionalaren eredu alternatibo eta osagarria da. Dagokion zehapena ezartzeaz gain, biktimari eta gizarteari egindako kaltea konpontzea, eragindako gizarte-harremanak lehengoratzeta eta arau-hauslea komunitatean berriz integratzea eta adiskidetzea sustatzea du helburu. Justizia errestauratiboak zigor-arloko arau-haustek eragindako kaltearen erreparazio integralerako bidea eskaintzen du, bai eta inplikaturako alderdien parte-hartze aktiboa ere delituak eragin ahal izan dituen ondorioen konponketan, batez ere biktimari dagokionez.

Biktimen arreta, ikuspuntu errestauratibotik, Europako legeria loteslearen xede izan da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentarauaren bidez. Zuzentarau horrek delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen ditu, eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen du. Zuzentarau horrek justizia konpontzailearen kontzeptua sortzen du, honela ulertuta: biktimari eta arau-hausleari, baldin eta askatasunez horretarako adostasuna ematen badute, hirugarren inpartzial baten laguntzarekin arau-hauste penalaren ondoriozko arazoak konpontzen parte hartzeko aukera ematen dion edozein prozesu, eta, zuzentarau horren arabera, estatu kideei neurriak hartzea eskatzen die, biktima bigarren mailako biktimizaziotik edo biktimizazio errepikatutik, lardieratik edo errepresalietatik babesteko. Neurri horiek justizia konpontzaileko zerbitzuak ematen direnean aplikatuko dira.

Europako Kontseiluaren esparruan, 2021eko abenduaren 14ko Veneziako Adierazpena aipatu behar da. Adierazpen horrek justizia errestauratiboko prozesuen abantailak azpimarratzen ditu, eta bereziki aipatzen du prozesu horiek borondatezkoak direla eta edozein unetan eten edo geldiarazteko aukera dagoela. Halaber, prozesuaren ikuspegia kalte materialak eta immaterialak konpontzean, borondatezkotasunean, parte-hartzean, konfidentzialtasunean, arau-hausleen gizarteratzean, bitartekarien edo bideratzaileen inpartzialtasunean eta, horrekin batera, estigmatizazio-arriskua murriztean datzala berresten du. Gainera, azpimarratzen du justizia errestauratiboa ez dela «justizia penalaren ikuspegi tradizionalaren esparruko tresna soil gisa soilik hartu behar, baizik eta justizia penalaren sisteman barneratu behar den kultura zabalago gisa, biktimaren eta arau-hauslearen borondatezko parte-hartzetik abiatuta, bai eta eragindako beste alderdi batzuen eta, oro har, komunitatearen parte-hartzetik abiatuta ere, krimenak eragindako kalteari aurre egiteko eta konpontzeko».

Adierazpen horrek aurrera egiten du Ministroen Batzordeak estatu kideei justizia errestauratibo penalaren arloan egindako CM/Rec (2018) 8 Gomendioak, zigor-arloko bitartekaritzari buruzko R (99) 19 Gomendia indargabetu zuenak, ezarritako bidearekin.

2012/29/EB Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora Delituen Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez ekarri zen. Lege horrek,

Orrialdea: 1 / 9



hitzaurrean, justizia errestituratihoaren kontzeptu zabala hartzen du, bitartekaritza, zirkuluak eta konferentziak barne. Lege hori funtsezko zutabea da biktimen eskubideak sendotzeko, eta, premisa jakin batzuen arabera, justizia errestituratiho boko zerbitzuak eskura ditzakete, delituaren ondoriozko kalteen erreparazio material eta moral egokia lortzeko.

Prozedura Kriminalaren Legean egindako aldaketaren ondorioz arautzen da justizia errestituratiho Espainiako ordenamendu juridikoan, Justiziaren Zerbitzu Publikoaren efizientziaren arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoaren artikuluetan bederatzigarren xedapen gehigarria sartuta.

Testuinguru horretan, lege-aurreproiektu hau arau-bilakaera horretan txertatzen da, eta jardunbide errestituratihoetarako lege-esparru argia, koherentea eta bermatzailea ezartzeko beharrari erantzuten dio, erabateko segurtasun juridikoarekin eta oinarritzko eskubideekiko errespetuarekin aplikatzen dela bermatuz.

Justizia Errestituratihoaren Legearen aurreproiektuaren xedea da Justizia Errestituratihoaren Euskal Eredua eta hura gauzatzeko bitartekoak sortzea, koherentzia eta segurtasun juridikoa emateko gaur egun hainbat eremutan zatikatuta garatzen diren prozesu errestituratihoei. Eredua horretan sartzen dira, batetik, prozedura penalean integratutako prozesu errestituratihoak, Estatuko legeria prozesalean aurreikusitakoaren arabera, eta, bestetik, jardunbide errestituratiho alternatihoak, aplikatu beharrekoak prozesu penal bat hasi, garatu edo amaitu ezin denean, prozedura-baldintzarik ez dagoelako, egile ezagunik ez dagoelako edo erantzukizun penala azkentzea dakarren eragozpen prozesal bat dagoelako.

Lege hau arautuko duten printzipioak honako hauek izango dira: alderdien borondatezotasuna eta baimen informatua, bideratzailearen neutraltasuna eta inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta oinarritzko eskubideekiko errespetua, eta tekniken malgutasuna eta aniztasuna, kasu bakoitzera egokituta, koherentzia eta koordinazio instituzionala bermatuko duen esparru komun baten pean.

Azken batean, Justizia Errestituratihoaren Euskal Eredua ezartzeak aukera emango du baliabide publikoak optimizatzeko eta karga judiziala murrizteko zigortzaileak ez diren metodoen bidez, biktimen arreta eta arau-hauslearen erantzukizuna hobetzeko, bai eta gizartea kultura errestituratiho baterantz sentsibilizatzeko ere, politika publikoekin eta Europako estrategiekin lerrokatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) xedapen orokorrak egiteko prozedura zehazten du, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek egiten dituztenei aplikatzeko.

Ondorio horietarako, arau-xedapen orokortzat hartzen dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen dutenak, eta ordenamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkatena, denbora-tarte jakin edo zehaztugabe batean hainbat egintzatarako oinarri gisa balio dutenak. XOEPLren 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dira, eta agindu horretan adierazitako gutxieneko edukia izan beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 20.1 k) artikulua, besteak beste, Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitzen dizkio «legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak», eta, beraz, eskumena ematen dio botere judizialak Prozedura Kriminalaren Legearen bederatzigarren xedapen gehigarri berrian aurreikusitakoa arautu ahal izateko bitarteko egokiak izan ditzan. Horregatik, eskumen-eremuarekin zorrotzak izanik, aurreproiektuan ez dira arautuko alderdi prozesal edo substantibo penalak, zibilak edo beste edozein jurisdikzio-ordenatakoak.

Azaroaren 5eko 326/2024 Dekretuak (Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) Justizia eta Giza Eskubideen Sailari esleitzen dizkion eskumenen artean dago Justizia Zuzendaritzari esleitzen zaion gatazkak konpontzeko bitarteko egokiak eta justizia errestitutiboko mekanismoak bultzatzea eta garatzea. Beraz, Justizia eta Giza Eskubideen sailburua da prozedura honi hasiera emateko agintzeko eskumena duena.

Horregatik guztiagatik, XOEPLren 4. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, agindu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestitutiboaren Legea arautzen duen lege-aurreproiektua egiteko prozedura hastea xedatzen da.

1.- Erregulazioaren xedea eta helburua.

Aurreproiektuaren xedea da Justizia Errestitutiboaren euskal eredia definitzea eta haren prestazio publiko, doako eta unibertsala bermatzeko oinarriak ezartzea.

Arauaren abiapuntua da eredu hori definitu egin behar dela, eredia osatzen duten elementuak eta filosofia zehaztu behar diren moduan, barneko segurtasun-, konfiantza- eta koherentzia-eremu bat bermatzeko.

Eredu horren helburua da biktimek jasandako kalteen erreparazioa lortzea eta arau-hausleak erantzukizuna hartzea, inplikaturako alderdi guztiek eta, hala badagokio, komunitateak programa, prozesu eta jardunbide errestitutiboetan parte hartuz.

2.- Bideragarritasun juridiko eta materialari buruzko balioespena.

Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eskumenekoak diren jarduera-arloak kontuan hartuta, egokitzat jotzen da Justizia Errestitutiboaren Lege-aurreproiektua egitea.

Lege-ekimen honek jardunbide errestitutiboetarako lege-esparru argia, koherentea eta bermatzailea ezartzeko beharrari erantzuten dio, erabateko segurtasun juridikoarekin eta oinarritzko eskubideekin errespetuarekin aplikatzen dela ziurtatuz, Prozedura Kriminalaren Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian jasotako erregulazioarekin bat etorritik.

Gaur egun, justizia errestitutiboko prozesuak hainbat modutan garatzen dituzte justiziarekiko lankidetzaz-zerbitzuek prozesu penalen hainbat fasetan; talde psikosozialek gazte-justiziaren eremuan deklarazio-fasean; eta erakunde espezifikoek askatasunaz gabetzeko zigorrak betearazteko fasean. Aldi berean, prozesu penaletik kanpoko jarduera-eremuak zabaltzen ari dira, prozesu hori hasi edo jarraitu ezin den kasuetan.

Aniztasun eta malgutasun hori ezinbestekoa da justizia errestituratioa aplikatu daitekeen kasuei eta eremuei estaldura emateko. Hala ere, malgutasun horrek koordinazio egokia, berme nahikoak eta segurtasun juridikoa izan behar ditu, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen jarduketa-ikuspegia partekatu behar du, baliabideak optimizatzeko eta emandako zerbitzu publikoaren koherentzia ziurtatzeko.

Proiektaturiko arauak, era berean, agerian uzten du Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dion autoantolaketa-ahala, autogobernua instituzionalizatzeko eta administrazio autonomikoa osatzen duten organo, administrazio-unitate edo entitateak sortu, aldatu eta ezabatzeko organoak erregulatzeko.

3.- Urteko araugintza-planean aurreikuspena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestituratioaren Legearen aurreproiektua egitea aurreikusita dago Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren urteko arau-plangintzan (2025eko martxoaren 13ko EHAA, 50. zk.).

4.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Agindu honen bidez egiten hasten den legea onartzeak ez du ekarriko indarrean jartzen den egunean indarrean dauden xedapenak indargabetzea edo aldatzea.

Ondoren, hura garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak onartu beharko dira, legean bertan zehaztuko den moduan.

5.- Eraginaren ebaluazioak.

1.- Generoaren arabeko eragina.

Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan xedatutakoaren arabera (2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartu ziren), Lehenengo Jarraibidearen 2.1.b apartatuan, proiektuarekin batera, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena aurkeztu behar da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aurreikusitakoa. Hala ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari helaraziko zaio, egiazta dezan.

2.- Haur eta nerabeen gaineko eragina.

Aurreproiektuaren edukiak eragin zuzena du haurrengan eta nerabeengan; izan ere, gazte-justiziaren eremuan eta gatazka-egoerek adingabeak uki ditzaketen beste testuinguru batzuetan jardunbide errestituratioak aplikatzea aurreikusten du.

3.- Gazteen gaineko eragina.

Ekimenak eragina du, halaber, gazteriaren eremuan, batez ere gazte-justiziaren esparruan; izan ere, eredu horren helburua da hezkuntza-erantzunak ematea

adingabeek egindako arau-hauste penalaren aurrean, arau-hauslearen erantzukizuna lehenetsiz, egindako kaltea konpontzeari eta gizarteratzeari lehentasuna emanez.

4.- Irisgarritasunean duen eragina.

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, proiektatutako arauak ez du inolako eraginik arlo horretan.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan izango duen eragina.

Aurrekontuaren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestauratiboaren Legea indarrean jartzeak ez du eragin ekonomiko zuzenik izango.

7.- Administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina.

Lege-aurreproiektuak ez du eraginik enpresak sortzeko eta funtzionatzeko administrazio-kargetan, sustapenari dagokionez jarduera ekintzailea.

8.- Idazketa egiteko arauak eta irizpideak.

XOEPLren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera:

1.- Lege-aurreproiektua idazteko, hasiera-agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere. Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2023ko uztailaren 11ko Erabakian xedatutakoa betez egingo da.

2.- Aurreproiektuaren zehaztapena justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia txertatu beharko da testuan.

3.- Testua ele bitan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan zehar hizkuntza-bertsioak egitean bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpena jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

4.- Era berean, testua hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez idatzi behar da.

9.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.

XOEPLren 13.1 artikularen e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak.

1.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikularen 1. apartatuan eta XOEPLren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege-aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita, eta herritarrei berariaz gonbidatuko zaie honako gai hauei buruzko iritzia eman dezaten:

- a) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- b) Arauaren helburuak.
- c) Konpondu nahi diren arazoak.
- d) Egon daitezkeen ordezeko irtenbideak, erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekoa betez, 2025-09-17an, Irekia plataformaren bidez (Eusko Jaurlaritzaren web-plataforma, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzeko), herritarrei gonbita egin zitzaion argitaratutako eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman zezaten, hilabeteko epean, egun horretan bertan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Agindu honen bosgarren apartatuaren arabera, eta XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabera eraginari buruzko txosten bat egin beharko da, eta Emakunderen esku jarriko da, egiazta dezan.

3.- XOEPLren 13.2 artikulua arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legegunean (Gardentasuna) argitaratuko da. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

4.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Memoria horrek, hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo errepikatu beharko du, eta, nolatan ere, XOEPLren 15. artikulua 3. apartatuak aipatzen duen edukia. Analisi-memoriak, halaber, azterketa ekonomikoa jaso beharko du.

5.- Lege-aurreproiektua idatzi ondoren, eta dagozkion kontsulta-izapideak egin aurretik, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuari aurkeztuko zaio, onar dezan, XOEPLren 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, XOEPLren 16.3 artikuluan aurreikusitakoa betez. Argitalpen honen data aldibereko bultzada onartzen duten izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango da, baldin eta izapide horiek nahitaez bete beharrekoak ez badira.

Halaber, aldez aurreko onarpen-agindua, arau-proiektuarekin batera, Legegunea lankidetzaren argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen ezarritakoaren arabera, lege horretan jasotako publikitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz zein gaztelaniaz zabalduko dela bermatzeko. Gainera, espediente osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

7.- Aldez aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua 1. apartatua ezarritakoaren arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketaren ondoren.

8.- XOEPLren 16. artikulua arabera, funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira. Guztiak aldi berean eta hilabeteko epe komun berean egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik aurrera:

- a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikulua aplikatuz.
- b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2.l) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera ere.
- c) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzako txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 12.1.n) artikulua arabera.

9.- Lege-aurreproiektuaren edukia kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da jendaurreko informazioaren izapidea egitea, XOEPLren 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurreko informazioaren izapideari dagokionez, jarduketa hauek egingo dira:

1) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da lege-aurreproiektua jendaurrean jartzeko ebazpena. Ebazpen horrek esteka bat izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan, eta bertan eskuragarri egongo da aurreproiektuaren testua, interesdunek egokitzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten 20 egun balioduneko epean, ebazpena EHAAr argitaratzen denetik aurrera.

2) Ebazpen bera, lege-aurreproiektuaren estekarekin batera, Irekian argitaratuko da.

10.- Ez da beharrezkoa Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

11.- Beharrezkotzat jotzen da Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridikoa egitea, XOEPLren 15.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

12.- XOEPLren 19. artikulua arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten hauek eskatu beharko dira:

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikuluan ezarritakoaren arabera,

urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez. Arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa Kontrol Ekonomikoko Bulegoan jaso eta 15 eguneko epean igorri beharko dira.

13.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua aplikatuz, lege-aurreproiektuei buruz kontsulta egin behar baitzaie, horien gaia eta xedea edozein dela ere.

14.- Esparru horretan, eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoa betez (Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketan), "Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzen zaion dokumentazio bera Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Legebiltzarreko taldeek horren berri izan dezaten".

15.- Arau-proiektuaren izapidetzea amaitu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak adierazita, XOEPLren 24.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

16.- Proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokienez, XOEPLren 29.1 artikulua arabera, arau-xedapen orokorrak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira, bi hizkuntza ofizialetan, indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko.

Horregatik guztiagatik, eta prozedura hasteko aginduak izan behar duen edukian oinarrituta, XOEPLren 5.1 artikulua arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Errestauratiboaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena.– Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritza izendatzea dagokion prozedura izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena. – Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Laugarrena. – Araudian aurreikusitako azterlanak eta kontsultak egitea, eta araua egiteko beharrezkoak diren txostenak biltzea, haren egokitasuna, legezkotasuna eta helburuak ahalik eta ondoen lortzea bermatuz.

Bosgarrena. – Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluak 2025eko maiatzaren 13an egindako bilkuran onartutako erabakiaren arabera. Erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartzen da.

Seigarrena. – Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua

MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ